

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

3556

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 22koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita ekintza humanitarioetarako estrategia markoen finantzaketa-lerroen laguntzetarako deialdia, 2018rako garapenerako lankidetzaren kargura.

Otsailaren 19ko 31/2008 Dekretuak garapenerako lankidetzaren kargurako ekintza humanitarioentzako laguntzak arautzen ditu, eta bi jardun-tipologia bereizten ditu. Batetik, larrialdietarako laguntzen proiektuak, hondamendiek eragindako pertsonen biziraupena bermatzeko eta sufrimendua arintzeko oinarritzko ondasun eta zerbitzuen premiazko hornidurara bideratzen direnak; eta, bestetik, ekintza humanitarioko proiektuak, adiera zabalagoan, jarduerak premia hain handia ez dutenean eta garapenerako, giza eskubideetarako eta bakea eraikitzeko oinarriak sustatu nahi dituztenean.

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiaren 2018ko martxoaren 28ko Ebazpenaren bidez (apirilaren 11ko EHAA, 69. zk.), 2018rako garapenerako lankidetzaren kargura, ekintza humanitarioetarako laguntzak emateko deialdia egin zen.

Deialdiaren ebazpenaren 5. artikulua ezarritakoaren arabera laguntzak emateko egin den proposamena ikusita, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak laguntza-eskaerak baloratu eta eskaera horien azterketa teknikoa egin eta gero, eta 2018ko ekainaren 21eko batzarrean Artezkaritza Kontseiluari horren berri eman ostean,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren idazkari nagusiaren 2018ko martxoaren 28ko Ebazpenaren bidez iragarritako laguntzak esleitzea ebazpenaren I. eranskinean ageri diren erakundeei, eranskinean aipatutako zenbatekoan eta eran.

Bigarrena.– II. eranskinean ageri diren erakundeei diru-laguntzen eskaerak ezestea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Laugarrena.– Ebazpen honetan ez da bukatzen administrazio-bidea, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal zaio, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Gora jotzeko errekurtsioa jarri denetik hiru hilabeteko epean ebazpenik ematen ez bada, ezetsizat joko da, eta administrazioarekiko auzien bidea libre geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 22a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.

2018ko uztailaren 9a, astelehena



I. ERANSKINA
DIRUZ LAGUNDUTAKO ESKABIDEAK

| Espedientea | Erakunde eskatzailea | Izenburua | Herrialdea | Puntuak | Proposatutako diru-laguntza |
|-----------------|------------------------------------|---|---|---------|-----------------------------|
| EHE-2018BA/0001 | Comité Español de la UNRWA elkarte | Estrategias de empoderamiento para reducir la vulnerabilidad de las mujeres en la franja de Gaza. Fase V | Palestinar Lurralde Okupatuak | 85 | 792.482,37 € |
| EHE-2018BA/0005 | Asamblea de Cooperación por la Paz | Protección de los derechos y la dignidad de la población palestina bajo ocupación conforme al DIH y el DIDH, con especial énfasis en la lucha contra la violencia de género y la protección de infancia | Palestinar Lurralde Okupatuak | 80 | 680.602,92€ |
| EHE-2018BA/0003 | Alboan Fundazioa | Tejiendo caminos seguros. Atención integral al desplazamiento forzado en el Triángulo Norte de Centroamérica | Costa Rica, El Salvador, Honduras, Mexiko | 71 | 779.961,57€ |
| EHE-2018BA/0006 | Arabako SEADen Lagunen Elkarte | Fortalecimiento de la cadena de suministro de agua potable en Mheiriz | Mendabaldeko Sahara | 70 | 646.953,14€ |

2018ko uztailaren 9a, astelehena



II. ERANSKINA
UKATUTAKO ESKABIDEAK

| Espedientea | Erakunde eskatzailea | Izenburua | Herrialdea | Arrazoa |
|-----------------|--|---|--|------------------|
| EHE-2018BA/0004 | Nazioarteko Eikartasuna - Solidaridad Internacional | Mejora de la seguridad alimentaria de la población rural a través de la reactivación de la agricultura, la ganadería y la protección del medioambiente en la sexta sección comunal de Bas de Lacroix y la séptima sección comunal de Bras de Gauche, en la commune de Bainet, Haití | Haiti | Funtsak agortzea |
| EHE-2018BA/0002 | Munduko Medikuen | Contribuir a la reducción de la morbi-mortalidad por enfermedades crónicas entre la población refugiada saharai de los campamentos de Tindouf | Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoa | Funtsak agortzea |